

JULIA GABILONDOREN LIBURU GALDUA: *JEL-AZIA*

Idazle oparoaren isilaldia

Aldizkari honen irakurleak baduke Julia Gabilondo Arruza-Zabala *Maite* (Mungia, 1902 - Donostia, 1994) idazlearen berri. Izan ere, *Karmelen* 300. zenbaki kari, idazle mungiarraren kronika batzuk argitaratu genituen orriotan¹.

Artikulugile oparo ere oparoa izan genuen Maite: *Euskal Esnalea*, *Euzkadi*, *Euzko*, *Aberri*, *Ekin*, *Eguna*... izan ziren mungiarraren kolaborazioak jaso zituzten hedabide nagusiak. Maiteren azken artikulua, “A! Geure jatorrija...”², *Euzkadi* egunkarian argitaratu zen Francoren tropak Bilbon sartu baino lau egun lehenago³.

Maite, hala ere, garaitsu horretan, 1937ko urtarrilaren 1ean Jaurlaritzaren aginduz sorturiko *Eguna* egunkariko erredakzio taldeko partaide finkoa zen. Dakigunez, euskara hutsez argitaratzen zen *Eguna*, eta ekainaren 13an kaleratu zuen azken zenbakia⁴, Bilbo sarraskituan. Esan beharra dago, ordurako, isilaldi luzetxo baten murgildurik zegoela mungiarra, Maitek

¹ Sarriguarte, Iñaki: “Autobusez. *Maite* idazle mungiarraren kronikak Euskal Herrietatik”, *Karmel*, 300, 2017-4, 28-55.

² *Euzkadi*, 1937-06-15, 4.

³ Frankistak 1937ko ekainaren 19an sartu ziren Bilbon. *Euzkadi* egunkariaren azken zenbakia, lau orrialdekoa, bezperan, hilaren 18an, kaleratu zen Bilbo ia-ia setiatuan. Edozelan ere, *Euzkadi*k bizirik jarraitu zuen Bartzelona errepublikarrean, bertan argitaratu baitzen 1937ko azarotik 1939ko urtarrilerarte arte. Bartzelonako aldi horretaz, ikus, Kortazar, Jon: “Literatura vasca en la Barcelona de 1938”, *Hermes*, 30, 2009, 84-90.

⁴ Guztira, 139 zenbaki argitaratu zituen *Egunak*.



A! GEURE JATORRIJA...

Napoleon aitaren jarraitzaian jain zan
 wotatzen dogun au. Napoleos gudaforu
 ta haita'ren entzertek ez dirukan giti:
 itango da. Hete aforerjak ta agindu ote
 beriazki abai-errek auzi ta. Europarik
 geyeta hete oinplan eadi abala eman ge-
 gite. Laitian jain dilerena mikererjak
 hete atzetan eubatasu eman lei. Hete jain
 regi itupuzqian jai ometua egiten aizan
 haren, erit-eikus eundakio kurtioi (ta-
 pte) eder gaitan, emakura lirin ta gi-
 mon jakintza ingurata, mota grotje-
 tado jptala getrafia jolatan itarduan,
 haita'ren gometua. Ekom'ko bakaliden
 jenez ezertien auten -ome berekoyari,
 itafak ontran lez d'adie egien hitziz
 bidertan egotan emakura lirakik, ta la-
 bakalidantzen inguruan aizanak...erogin
 bakat bat euker: emda jostatu ta alaita,
 grotiko ez egilan.

Furkio lagun -haua sikiletan otera
 bertiko erreali talda gutxi ta poze
 jolatan man une beritazta Bakalidantze-
 ni hoya zuz juri eukuan murtio aita-
 lik eda ezio etziti ei jain ehan jarreit,
 ko mikererjak emotan iguina. Hun, ar-
 thuri, edite ta utzeta zabaldu emoten
 ihau hete egitenek. Uterzo, ba, beraga-
 na hete aita haita'ia ta etas oitjan:

—Zer don, stee?

—Ara, eman emate inguruta diran lau
 bi, itadi ta erit jurek iguina d'omate...

—Guzok... eritja dia, une, erantzen
 jutan hitak.

—Guziak gogaitzen nan, jarebiti ehan
 uakik. Leati g'ion, gudaforu ta eukel
 aita'ekin edetean aita'izatek adieraz-
 ten emota.

—Zuzok, une jatan utzeta anah, heta
 barginatzen ta hitza d'itake.

—Gaua gutxiok sailtuta ta euketan
 jake, beretan jain uakik, heta inguru-

tem ehan emakura lirin ta une politik
 eintduz.

—Euron liraitaruna, edetiaruna d'itake,
 erantzen utzeta uakik. Zer nai don, ba,
 on'itake hite ezitudo uakik, eman emate
 hete hita aita'ak, gurari ezatzen bat
 agertzen ehan zmitzen auzegiratu ta
 tunkio m'itortzen?

—Aia, erantzen emata uakik jorotzen
 heta berotzak itatatu, bastan edel
 nretan it'itudo gura uakik.

Ez da betan, irakurte, g'itak jorot-
 zen edertak... Zuzeg'itazten, erit, ba-
 ru... argiazten, deuntazten ingurata
 g'itak, eita uakik... eta o'itako g'itak
 zabarte ta bastata jutan gura ge-
 re b'itje g'itak auzeta.

Zibetako jolatan batak eman ei-erant:
 "Neure gortatzen jopy itakido bako,
 ranta gortatzeneko jopy nan." Eta ez
 erit auzitja!

Loyola'ta' itak'ik eman ei ehan: "Ze
 ituzitaki yang l'itja, neure berjak
 auzeta jaitzen."

Ekom'ko bakalidantzen mikererjak ingu-
 ratuta lez, gure b'itjea nertatek Golin
 j'itak'ik l'itjan itel d'itak'itza g'itak-
 ta, g'itak-maitatzen ingurata gura eta
 g'itak bakalidantzen lez, nertatuta, ingu-
 rituta, g'itak-g'itak ta g'itak-maitatzen
 zabarte auzetaki nertatuta ei diran uakik
 d'itak'itza-bastan nertatuta gura dogu.

Efoma'ko bakalidantza une nan...
 ba g'itak jaitzen egin dirungu gure ba-
 ruzak.

A!... Geure jatorria aita'ko ez ba g'it-
 du... Jato'ia, jatorriak g'itak g'itak
 ba-g'itak, ez g'itak g'itak o'itak ita-
 kastatu artitjan, ez.

MAITE

Maiteren azken lan argitaratua (Euzkadi, 1937-06-15)

Egunan publikaturiko azken artikulua, “Emakumiaren zoritxafa”, apirilaren 25ekoa da-eta⁵; Gernikako bonbaketaren (1937-04-26) eta Lauaxetaren atxiloketaren (1937-04-29) aurretxoan, hain zuzen ere. Dakigunez, Lauaxeta Gernika ondoan atxilotu zuten, Frantziako egunkari bateko korrespontsalari alemanek euskaldunen herri sinbolikoan eginiko triskantza ankerra erakusten ziharduela.

⁵ 1937ko ekainaren 15ean *Euzkadin* argitaratutako artikulua, baliteke mutualdia baino lehenago idatzita egotea, eta, gerra-egoera larriak eraginda, *Euzkadi* *Egunako* artxibategitik-edo hartua izatea.

Emakumiaren zoritxafa

Zeure kolkorako ez dogu, ene emakume mailia. Itxane zu, itxoz egin: "Zek zoritxartu negike?" Itxoz egia ez ba-dausazu zeure batuari itxane zu, jafaitazu.

Zoritxona...! Ori itzaren gozua. Zoritxafa...! Ori itzaren gafatza. Zoritxonaren jafai gabilitza gustijok eta zoritxafari igesika. Eta egia esan ez dogu bial geunkan astiz gauza gafa tristu au biotzar gogartu.

Zek zoritxartu negike...? Ogasunak gaitziak? Egia esan, ogasunak aibat gatzararako gaitzak dira ludijon, bada ogasun berik be emakumia zoritxontsua ixan daik. Zentot emakume txiro ta biartsu eza-utxen doguz zoritxon gentsuz inguratuta...! eta bariz, zenbat emakume aberats okitu zoritxon-egafiz...!

Zek zoritxartu negike...? Jaunak kua'k emon daustan argitasunaren xmit bat gaitziak? Buru-argitasuna gauza edefa ta onuratsua da, ezin ukatu; buru-argitasunak zoritxon-ate gaitziak dauko ludijon zabalik Ba-fa esta, buru-argitasun gaitziak be enaz zoritxartuten. Buru-argitasuna sari askotan gaitziak da; afokeriaren iturburu... amalka laprasten zija...

Zek zoritxartu negike...? Neure soin-edefasun eta lirafitasuna gaitziak? A, emakumiarentzat edefitasuna ta lirafitasuna bitxirik ikusgaitzenak dirudije. Emakume edefa... emakume lirafa... Ofek itxen zora-gaitziak...! Emakume edef ta lirafa gusti-aldumak dira ludijon. Eta ofa-

tino, edefitasuna gaitziak be ez dau zoritxartuten emakumia. Ixan be, edefitasuna ta onitasuna gauza bi dira ta edefiak diran aibat emakume, ez dira onak; alderantzira, motzak edo itsusjiek diran emakume asko onak dira. Eta emakume edef utsak nekatu egien dau. Eta zer, edefa ta ona batera izanda be? Edefitasunak iges egiten dau...

Zek zoritxartu negike...? Neure mailiaren edo neure mailien mailasuna gaitziak? Ori atsekabiaren gordina... Mailiaren mailasuna galdau... Neure bihotza negu asankan ixan of-dodazan mailiaren bihotza galdau... Bere mailasunaren beso beruetan kufukatu nabek kutuna galdau... Ori otza emoten daben gogafkun ihun onek... Baha... egija esan, gaitze ofixek be ez dau emakumia zoritxartuten galdau ezin dalken mailamendua daukolako... geure mailasun gaitzen bihotza irakiten daukan bihotz jaunkoys...

Zek zoritxartu negike? Zek...? Ba-dakit, bati Jaungoiko-ediakidetasuna gaitziak, emakume-bihotzaren arken-sari ikusgaitzi ofen Josu mailia gaitziak, Ogasunak... buru-argitasuna... soin-edefitasun eta lirafitasuna... maille-likofa... zer dira? Josu'k bere bihotz jaunkaitik jasurti ta ludijon izatiz artu daben irazaki txirrak...

Jayon dazitun kutunkiro bihotz kutxan geure zoritxon osua dan bitxi ikusgaitzi au.

MAITE.

Maiteren azken artikulua Egunan (1937-04-25)

Gernikako hondamendiak eta olerkari handiaren atxiloketak zauri handi ere handia utzi ei zuten Maite jatorraren baitan. Lauaxeta eta Maite, bitzuak ezagutu zituen Augustin Zubikarai idazle eta *Egunako* kazetaria izan zenak lotura zuzena ikusi us-te zuen tragedia handi haren eta Maiteren mutualdiaren artean:

"*Lauaxetak* zirikatu eta adoretu eban *Euzkadi* egunkarian idaztera, eta nik be *Lauaxetaren* bitartez hartu neban beraganako ezaupide eta adiskidetasuna: Jule Gabilondo, *Maite* deituraz idazten ebana. Nik esango neuke *Lauaxetaren* miñez edo naigabez mututu zala. Beintzat guk euki dogun berrogetak ur-

tetako garizuma luzean, idazle lez baraua egin ebala esango neuke. Agertu ez behintzat”.⁶

Bizkaiko gerra-frente nagusiak jaustear zeudela, ihes egin behar izan zuen Maitek. Hasieran, Santander aldera; gero, handik, itsasoz, Bordelera; azkenean, Iparraldera heltzeko. Maitek Donibane Lohizunen eman zion amaiera ihesaldiari, bertan bizi izaten jarrita.

Hegoaldera itzultzean, Gipuzkoa aldean bizi izan zen Maite (Beasain, Lazkao, Donostia); baina, tamalez, haren idazle-lanak ez zuen segidarik izan. Idazle trebeak isilik jarraitu zuen. Donostian zendu zen 1994ko urtarrilaren 1ean, 91 urte zituela.



Julia Gabilondo Maite (1902-1994)

Eskutitz bat Azkaindik Baionara: eten da mutualdia

Badago, hala ere, tarte bat non Maitek berriro ekin baitzion idazteari, bere gogoetak, usteak, kezkek-eta papereratzeari. Iparraldeko egotaldi behartuaren lehenengo hilabeteetan helduko

⁶ Zubikarai, Augustin: “Nire gogoetak. Omenaldiko itzaldia (27-6-87)”, *Zer*, 111, 1987-iraila, 8-9. Bartzelonan, 1937ko azarotik aurrera argitaratu zen *Euzkadin*, badaude Maiteren artikulua zenbait, baina aurreko urteetan argitaratutakoak dira; eta, gehienetan, egilearen daturik gabe kaleratu ziran.

ziokeen, seguru asko, Maitek idazlumari, hango pausaleku berri, lasai eta euskalduna baliaturik. Kontua da, 1938ko martxoaren 17an, Manuel de Madariaga abadeak honako gutun hauxe bidali ziola Julia Gabilondori, Lapurdi barruko Azkain herritik kostaldeko Donibane Lohizunera bidali ere:

*Sra. Dña. Julia de Gabilondo
Donibane Lobitzun*

Agur: He leído con verdadera fruición y casi de un tirón su “Jel-azia”. Mi más completa enhorabuena. ¡Cuántas veces he echado de menos una obra literaria de este género en nuestro campo! Hace algunos años publicó en nuestro diario “Euzkadi” el Sr. Eguzkitza con su habitual maestría y competencia un tratado sobre la mujer; aunque acreedor a un tomo, en las columnas del diario vasco desapareció la magnífica producción del benemérito hijo de nuestra raza. Su producción de Vd. viene a llenar un gran vacío en nuestra literatura. El ideal sabiniano... la mujer vasca y su labor social... la madre vasca... la juventud vasca... tratado todo ello hábilmente, envuelto todo ello en la sutil gasa de su alma femenina.

La segunda parte, aunque breve, toca las últimas fibras de la cruenta guerra que tan crudamente ha maltratado a Euzkadi. Literariamente no tan pulcra como la primera. Los documentos que aduce en ella importantísimos para la historia de Euzkadi. ¿Por qué no especifica V. los nombres y apellidos de los distintos autores de las cartas que aduce en ella? Antes de dar a luz debe subsanar esta pequeña omisión, a mi parecer.

Su “Jel-azia” debe quedar en propiedad de nuestras autoridades, para que en la primera oportunidad procedan a su impresión. Claro que al leer esto el E.B.B. debe de premiar espléndidamente sus desvelos por el renacimiento vasco.

*Le reitera su más cordial enborabuena, deseándole nuevos triunfos en nuestro campo literario. S. a. y s. s. en Jel*⁷.

*Manuel de Madariaga*⁸
Azkain, 17-III-1938

Maiteri zuzendutako eskutitzean, Manuel de Madariaga abadeak goraipatu egiten du mungiar idazlearen lanaren egokitasuna. Bide beretik, lanaren baitako antolaketa buruzko argia ematen digu, bertan atal nagusi bi nabarmentzen dituelarik. Lehenengo zatian, Maitek bere artikuluetan ohikoak ziren gaien gainean dihardu: Aranaren idearioa, Euskal emakumea eta gizarte-lana, Euskal ama, Euskal gazteria... Bigarren zatian dago-kionez, Madariaga apur bat kritiko agertzen zaigu. Kasuon, Maite gerrari buruz ari da, eta Madariagarentzat ukitu literarioa txikiagoa da lehenengo partean baino. Beste aldetik, idazleak erabiltzen dituen dokumentuak-eta garrantzi handikoak badira ere, agirion egileen izen-abizenak ez jartzea konpondu behar-reko hutsunetzat hartzen du Madariagak; eta, argitaratu aurretik, hutsune hori konpontzeko aholkatzen dio Maiteri.

Txosten bat Baionatik Angelura

Egun batzuk geroago, 1938ko martxoaren 31n, Jemein⁹dar Keperin⁹ jeltzaleak Maitek idatzitako liburuari buruzko txos-

⁷ Kortesiako formula laburtua ez dago oso argi dokumentuaren fotokopian.

⁸ Manuel Madariaga Ariño (Durango, 1903 - New York, 1959). Abadea. *Euskal Esnalea* aldizkariaren kolaboratzailea 1923tik 1931ra. Abade errepresaliatua, 1938an Azkainen (Lapurdi) dugu. Gerora, Kubara abiatu zen, eta Santiagoko Bikario Nagusi izan genuen, baita El Cobre (Oriente) herriko San Basilio Magno seminarioko erretore ere. Kubatik AEBetara joanik, 1959ko urtarrilaren 31n, New Yorken, hil zen, 56 urte zituela (Ikus: Euzko Apaiz Talde, 1981).

Santiagoko Bikario Nagusi dela, 1948ko urriaren 11n, Fidel Castro eta Mirta Díaz Batart esposatu zituen Banes (Oriente) herrian, alboan, testigu, anaia Fidel Madariaga zuela, hau ere abadea zena eta Manuelekin batera Kuba aldera jo zuena (Ikus: Otorra-Aldekoa, Antton Mari, 2016).

⁹ Jemein Lanbarri, Ceferino (Abando, 1887 - Bilbo, 1965). Euskal abertzale eta ekintzaile ezaguna. Arana anaiak ezagutzean, 17 urte baino ez zituela,

ten bat bidali zien Euzkadi Buru Batzarreko agintariei, Baionatik Angelura. Izan ere, aurkezpenezko eskutitzean irakur daitekeenez, EAJtik beren-beregi eskatu zitzaion txosten-egileari Julia Gabilondoren liburu berria aztertu zezan. Bide beretik, Jemein jaunak bigarren kopia bat igorri zuen EAJk Parisen zeukan egoitzara, eta hirugarrena, Julia Gabilondori berari eman zion. Hona hemen, txostenaren atarikotzat Keperinek erantsitako gutun antzeko idazkitxoak:

Bayona 31 de marzo de 1.938
EUZKADI-BURU-BATZAR
ANGELU (Euzkadi)

Aguí:

Me complazco en enviarles con la presente el libro que la escritora euzkerica que se ha acreditado con el seudónimo de MAITE me entrega, con encargo, según me dice, de esa Autoridad del Partido, para que lo examine y lo informe con mi opinión.

Cumplo gustoso el encargo enviándoles también juntamente el informe de referencia.

Otra copia igual envío a la autora para su conocimiento y a las oficinas del partido en París al igual fin.

JEL-bian

*Jemein dar Keperin*¹⁰

abertzale bihurtu zen. Bizkaiko Aldundiko Euskal Katedran ikasi zuen euskaraz. 1921ean, nazionalismo berria bitan banatzean, EAJ eta Comución Nacionalista, jarraitu egiten dio bere lagun Eli Gallastegiri, eta EAJn geldituko da. 1930eko apirillean, EBBko lehendakaria dela, parte-hartze zuzena izan zuen nazionalismoaren bi korronteak berriro elkarrengana batzean. Sabin-dar ortodoxoa genuen. Idazle modura, haren lanak garaiko hedabideetan aurkitu daitezke: *Aberri, Bizkaitarra, Euzkadi, Euzko Deya...* 1933. urtean, *Biografía de Arana-Goiri'tar Sabin e Historia gráfica del nacionalismo vasco* liburua eman zuen argitara. (<http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus>).

¹⁰ Sabino Arana Fundazioa, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia, EBB-184-13.

Txostenak, gorago aipatutako idazkitxoaz gain, zazpi orrialde ditu. Lehenengoan, Maite idazleari buruzko bere iritzia emanik, lan berriaren izenburua damaigu, meritu handikotzat joz:

“La brillante escritora euskerica señorita Julia de Gabilondo –de fácil y elegante pluma–, que con tanto entusiasmo ha colaborado profusamente en las columnas de la prensa patriota y muy especialmente en nuestro gran diario EUZKADI, ha escrito, en el destierro, una obra meritoria que lleva por título: JEL AZIA”¹¹.

Hurrengo lerroetan, Jemein´dar Keperinek kontatzen digu, behinola, nola adierazi zion Maitek bere gogoaz liburu berria irakur zezan, baita liburuaren gaineko bere iritzia eman ziezaien ere. Maitek, idazmakina jotako liburu-proiektuarekin batera, Manuel de Madariaga apaizaren eskutitza ere eman zion. Jemein, bere komentarioan, bat dator Madariagaren zenbait ideia eta iritzirekin; eta, hortik abiatuta, ematen dio hasiera bere txostenari:

“Esta opinión del señor Madariaga, que comparto, me abre el camino para evacuar mi Informe a esas autoridades legítimas del PARTIDO NACIONALISTA VASCO, que me honran con tan grata y delicada misión, según me comunica de palabra la Sta. MAITE”¹².

Informeari berari bagagozkio [2-7. or.] Jemeinek honela definitzen digu *Jel-azia* liburuaren: errotik abertzalea, zintzoki kristaua eta ideal sabindarraren goraiamenak beratua. Funtsean, “Gu Euzkadi´rentzat eta Euzkadi Jaun-Goikua´rentzat” goiburuaren inguruan bilbatutako lana litzateke Maitek Iparraldeko egotaldian burututakoa.

¹¹ Ibidem [Txostena, 1. or.].

¹² Idem.

Hona hemen, *Jel-azia* liburuan topatzen ditugun materialak: a) Hitzaurrea, b) Eskaintza, c) Hamar kapitulutan banatutako testua, eta d) Epilogo. Jemeinen ustez, hamar kapituluok hiru atal nagusiren inguruan antolatu daitezke: I) “Euskadi eta euskara”, II) “Euskal emakumea eta euskal gazteria”, eta III) “Euzkadi eta gerra”. Ikusten dugunez, Madariagaren banaketari atal bat gehitzen dio Jemeinek, haren lehenengo partean atal bi ikusten dituelarik. Funtsean baina, antzeko sailkapenak egiten dituzte bitzuok.

Jel-azia liburua idazteko, Maitek bere kazetaritza-lanetan erabilitako bizkaiera jator eta aberatsa erabili ei zuen, Jemeinen gustukoa zena: “Escrita su obra en castizo euzkera bizkaino, que siendo correcto está al alcance de todos –límpio y fácil a la vez– [...]”. Baina idazkerari bagagozkio, Jemein ez dator bat Maitek erabilitako ortografiarekin eta minbera agertzen da mungiarraren aukeraren inguruan:

“Otra cosa es la fonética. Entusiasta defensor yo de la escuela euzkaralógica sabiniana, no solo por sentimiento, sino por convicción, me duele verla vencida y desterrada por sus mismos discípulos.

MAITE se ha decidido por la escuela antisabiniana, que prescinde de la fonética euzkerica, tan peculiar de nuestra lengua –obra del euzko misterioso– y que aporta una nota más de diferenciación”¹³.

Aurrerago, Jemeinek diosku bere burua behartuta ikusten duela Maiteren aukera ortografikoa zalantzan jartzeko, baina errespetatu egiten duela egilearen aukera. Bide beretik, dio, puntu horretan bat ez etortzeak ez diola ezertariko trabarik jarri behar obraren balizko argitalpenari. Beren-beregi eskatzen duena zera da: Aranaren esanak edota aipuak idaztean, osoki

¹³ Ibidem [Txostena, 3. or.].

eta literalki papereratzeko, hots, hark idatzitako modu-moduan.

Arlo erlijioso eta politikoan¹⁴, Jemeinek liburuan ez du ikusten orduko ortodoxia jeltzaletik aldentzen den planteamendurik. Lehenengoari buruz, diosku, nahikoa dela Maiteren kultura erlijiosoa ezagutzea, aita Madariagak emaniko laguntza azpimarratzen duelarik. Bigarren arloari –politikoari– heltzen dionean ere, funtsean ez du eragozpenik ikusten liburua argitaratzeko: “La doctrina es siempre sana y francamente sabiniana”. Edozelan ere, hori esan eta gero, hainbat iruzkin eta proposamen egingo dizkio Maiteri arlo horretan.

Txostenaren amaieran, Jemeinek arlo sozio-ekonomikoari jartzen dio bere arreta, liburua argitaratzeko orduan, kontuan hartu beharreko zenbait puntu jorratuz. Hasteko, liburuaren luzeraren berri ematen digu: makinaz jotako 150 orrialde ditu lanak, inprentan beste horrenbeste emango zituztenak. Euskal letra tipoak direla-eta, liburua kaleratzeko ez du biderik ikusten Frantzian, ezta Bartzelonan ere: “No veo más posibilidad de publicarlo actualmente, que en América”, nahiz eta aitortzen duen ez zekiela ondo gauzak nola zeuden itsasoaz beste aldean.

Orduko euskaldunen egoerari ere begiratzen dio Jemeinek, eta penaz aitortzen du gerrak oso zatikatuta, kolpatuta eta pobretuta utzi dituela euskaldunik gehienak. Momentua, beraz, ez omen zen oso aldekoa holako ekintzetarako. Hala ere, honela bukatzen du bere lana: “No obstante, su publicación es aconsejable, como dice el P. Madariaga, *en la primera oportunidad*”.

Laurogeitazak urteak pasatu diren arren, ez dirudi liburuak argia ikusi duenik. Era berean, ez dakigu Jemein jaunak erabi-

¹⁴ Jemeinek, txostenaren bigarren erdian, hiru arloak jorratzen ditu –haren hitzak erabiltzen ditugu–: “Aspecto religioso”, “Aspecto político”, eta “Aspecto económico-editorial”.

litako orijinalak, makinaz jotakoak, zer zori izan zuen II Mundu Gerrako Iparralde eta Frantzia okupatueta. Beste kopiarik egon zenik ere ez dakigu. Kontua da, eskuizkribua idorotzea eta argitara ematea guztiz mesedegarria izango litzagukeela: bateko, Maiteren idatzien bilduma osotu eta hobeto ulertu ahal izateko; eta, besteko, liburuaren bigarren parteko gerrakronika ezagutzeko. Izan ere, urriak dira gurean, gerra garaian, gerraren gainean, andrazkoek eginiko argitalpenak, eta bakanagoak euskaraz. Aurkikuntza horrek Maiteren idazle-soslaiaren osagarri berriren bat emango liguke, seguru asko.

Lerroon helburu nagusia liburuaren hutsunea jakinaraztea izan da, baita Maiteren obra galdu horren inguruan argi apur bat eskaintzea ere. Agertuko ahal da gesu baten! Idoroko ahal dugu nonbait! Pozgarria litzateke, zinez!

Bibliografia

- Auñamendi Enziklopedia: “Jemein Lanbarri, Ceferino”, <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus>.
- Atxaga, Mikel: *Euskal Emakume Idazleak*, Bidegileak, 9, Eusko Jaurlaritz, Gasteiz, 1997.
- Bilbao, B./Ezkurdia, G./Perez Urraza K./Chueca, J.: *Emakumeak, hitza eta bizitza*, BFA-EHU, EHUKo Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 2012.
- Diarium Romanae Curiae: Acta Apostolicae Sedis, 21 Apirilis, 1951, (de Madariaga Ariño Emanuele), 233. <http://www.vatican.va/archive/aas/documents/AAS-43-1951-ocr.pdf>.
- Euzko Apaiz Talde: *Historia General de la Guerra Civil en Euskadi*, V. liburukia, Naroki / Luis Haranburu Altuna, Gráficas Ellacuría, Bilbo, 1981.
- Gabilondo, Julia: “¿Gizona ala emakumea? ¿Zein da kemen-tsuagoa?”, *Euskal Esnalea*, 1931, Otsaila, 326, 23-29.
- ----: “Emakumiaren zoritxafa”, *Eguna*, 1937-04-25, 2.
- ----: “A! Gure jatorrija...”, *Euzkadi*, 1937-06-15, 4.


- Jemein´dar Keperin: [“Eskutitza”] (Euskadi Buru Batzarrari zuzendua, 1938-03-31), Sabino Arana Fundazioa, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia: EBB-184-13 [CARTAS/1938/PNV_NAC_EBB,K.00184,C.13].
- ----: “Informe” (Julia Gabilondoren *Jel-azia* liburuari buruzko txostena, EBBri zuzendua, 1938-03-31), Sabino Arana Fundazioa, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia: EBB-184-13 [CARTAS/1938/PNV_NAC_EBB,K.00184,C.13].
- Kortazar, Jon: “Literatura vasca en la Barcelona de 1938”, *Hermes*, 30, 2009, 84-90.
- Kultura eta Turismo Saila. Eusko Jaurlaritza: *Eguna*, Edizio faksimila (1937-01-01/1937-06-13), Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1990.
- Madariaga, Manuel: [“Eskutitza”] (Julia Gabilondori zuzendua, 1938-03-17), Sabino Arana Fundazioa, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia, EBB-184-13 [CARTAS/1938/PNV_NAC_EBB,K.00184,C.13].
- Otalora-Aldekoa, Antton Mari: “Fidel-Durango-Martí-Sabin”, *Berria*, 2016-12-13 (<https://www.berria.eus>).
- Sabino Arana Fundazioa: *Eguna. 1937-2017. 80 urte*, Zenbaki monografikoa, *Hermes*, 2017-Ekaina, 56, 2017.
- Sarriugarte, Iñaki: “Autobusez. Maite idazle mungiarraren kronikak Euskal Herrietatik”, *Karmel*, 300, 2017-4, 28-55.
- Zubikarai, Augustin: *Makil'en Egunak*, Gaubeka Irarkola, Gernika, 1983.
- ---: “Nire gogoetak. Omenaldiko itzaldia (27-6-87)”, *Zer*, 111, 1987-iraila, 8-9.


*Galdakaon, 2020ko Urteberri egunez*¹⁵



Iñaki Sarriugarte Irigoien

¹⁵ Maitek utzi gintuela 26 urte betetzen diren egunean, eta *Eguna* egunkaria lehenengoz kaleratu zeneko 83. urteurrenean.

Eranskina: dokumentuak





 Mij librua de ta eruenta jorua que tan eru-
 damente ha maltratado a Euzkadi. Historiari-
 mente no tan putera como la primera. Los do-
 cumentos que aduee en ella importantissimos por
 la historia de Euzkadi. ¿ Por que no especifica
 los nombres y apellidos de los distintos autores de
 las cartas, que aduee en ella? Antes de que a lue-
 go debe subsanar esta pequeña omision, a mi parecer.
 En « JEL-aria » debe quedar en propiedad
 de nuestras autoridades Bar. fue en la primer-
 unidad bicelebrada a. impresioin - claro que al
 near esta el E. S. S. debe de premiar esplendia-
 mente sus desieros por el renacimiento de susos.
 Le reitera en mi cordial enhor-
 buen - deseando los meus triunfos en nuestro
 campo literario. s. s. y e. en Jel



 HERRAN - 17 - 116 - 1938

Manuel de Madariagak Mañteri bidalitako gutuna (Sabino Arana Fundazioa. Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia: EBB-184-13)